



Domingo Gorringo pirata

Mundu guztiak Domingo Gorringo deitzen zion. Pirata zen: oihal beltz batez estalia zuen begia, eta egurrezko hanka bat zeukan. Baina Domingo Gorringok ez zuen inor beldurtzen.

Neska mutilek esaten zioten:

–Domingo Gorringo, non duzu ezpata?

–Domingo Gorringo, non duzu altxorra?

Hala ere Domingo Gorringo ez zen haserretzen.

Domingo Gorringok bazeukan, bai, altxor bat urrutiko uharte batean gordeta. Domingo Gorringok ez zeukan itsasontzirik ordea, eta ez zuen inork pirata urrutiko uhartera eraman nahi.

Behinola kapitain batek esan zion:

–Domingo Gorringo, neuk eramango zaitut urrutiko uhartera.

Kapitainak eraman zuen Domingo Gorringo urrutiko uhartera, eta han aurkitu zuen gaztetan gordetako altxorra.

Altxorreko urreak uharteraino eraman zuen kapitainari eman zizkion. Altxorreko perlez, itsasontzi berria erosi zuen. Altxorreko diruez goxokiak eta gailetak erosi zituen herriko neska-mutilentzat.

Anjel Lertxundi

* Txikienei zintzotu zen pirataren ipuina kontatu

** Ipuina ozen irakurri. Pirataren altxorrean, ikasleek nahi dituzten gauzak sartu eta ipuina aldaketa hauekin berriz ere kontatu.

***Pentsa dezagun, pirata zahar bat urrutiko uharte batean bizi dela eta bere herrira bueltatu nahi duela bere altxorra banatzera.

Ipuina berridatzi perspektiba aldaketa hau erabilia.